



HEZKUNTZAKO EMAITZAK HOBETZEKO 2025- 2028KO ALDIRAKO ESTRATEGIA INTEGRALA



1. ESTRATEGIAREN ZENTZUA ETA HELBURUA

Hezkuntzako Emaitzak Hobetzeko Estrategia Integrala da euskal hezkuntza-sistema publikoaren esparru pedagogiko komuna 2025-2028ko ikasturteetarako. Helburua ikasleen ikaskuntza etenik gabe eta modu ekitatibo eta koherentean hobetzea da, kompetentzien garapena, ongizate sozioemozionala eta bizikidetzeta positiboa bermatuz, ikuspegi sistemiko eta inklusiboa hartuta eta ebidentzietan oinarrituta.

Estrategia elementu egituratzailea da, honako hauek ahalbidetzen dituen:

- hezkuntza-politikak, ikastetxearen plangintza eta irakaskuntza-praktika bat etortzea;
- programen logika zatikatuak gainditzea;
- ikastetxeen autonomia arduratsua indartzea;
- eta etengabeko hobekuntzara bideratutako kultura profesional bat finkatzea.

Esparru hori erabat txertatuta dago honako hauetan:

- EAEko Hezkuntzaren 17/2023 Legea.
- Euskal Eskola Publikoa Eraldatzeko I. Plan Estrategikoa (2025-2028);
- Oinarrizko Hezkuntzako eta Batxilergoko curriculum-dekretuak;
- 78/2024 Dekretua, aniztasunari erantzutekoa;
- eta ebaluaziorako, orientaziorako, bizikidetzarako, hezkidetzarako eta ongizaterako estrategia instituzionalak, bai eta euskal hezkuntza-sistemaren eraldaketa digitalerako plana ere.

Estrategiak honako hauek norabideratzen ditu datozen bi ikasturteetarako:

- ikastetxeen plangintza;
- urteroko ebazpenak;
- Hezkuntzako Ikuskaritzaren, HeziLaben eta BiziLaben jarduna
- eta sistemaren beraren ebaluazioa.

Hobetzeko kultura partekatua, koherentea eta jasangarria finkatzea da helburua.



2. PRINTZIPIO ESTRATEGIKOAK

Estrategia printzipio hauetan oinarrituta dago:

1. **Ikuspegi sistemikoa**

Hezkuntza hobetzeko, arauen, eskola-antolamenduaren eta praktika pedagogikoaren arteko koherentzia behar da.

2. **Ekitatea eta inklusioa**

Emaitzak hobetzeko, arrakalak murriztu behar dira eta ikasle guztien —batez ere, ahulenen— aurrerapena bermatu.

3. **Ikasleen eta ongizatearen zentraltasuna**

Ikaskuntza, bizikidetza eta ongizate sozioemozionala eskola-arrakastatik ezin bereizi daitezkeen dimentsioak dira.

4. **Hobekuntzak egiteko ebaluazioaren kultura**

Ebaluazioak pedagogia-, antolamendu- eta prestakuntza-erabakien berri eman behar du.

5. **Lidergo pedagogiko partekatua**

Zuzendaritza-taldeak, BeA figurak eta orientazio-taldeak funtsezko eragileak dira eraldaketan.

6. **Erantzukizuna duen ikastetxearen autonomia**

Ikastetxe bakoitzak bere testuinguruan zehazten du estrategia, esparru komun partekatu baten barruan.

3. ESTRATEGIAREN ARKITEKTURA: ESKU HARTZEKO HIRU MAILA

Estrategia **elkarri lotutako hiru mailatan** egituratuta dago (makroa, erdikoa eta mikroa), sistemaren, ikastetxearen eta ikasgelaren arteko koherentzia eta jarraitutasuna bermatzeko.

3.1. Makro maila: hezkuntza-sistema

Makro maila Hezkuntza Sailaren ardura da, eta ikastetxeak hobetzea ahalbidetzen duen esparrua definitzen du.

Hauak biltzen ditu:

- araugintza-garapena
- estrategia eta plan instituzionalak



- egiturazko programak
- ebaluazio- eta jarraipen-sistemak
- prestakuntza-eskaintza eta laguntza

Maila honetan, hau bermatzen da:

- sistema koherentea izatea
- ekitatez banatzea baliabideak
- programak helburu estrategikoekin bat etortzea
- eta ikastetxeei eta profesionalei laguntza teknikoa ematea

3.2. Erdiko maila: ikastetxea hobekuntza-unitate gisa

Ikastetxea funtsezko unitatea da planifikatzeko, hobetzeko eta eraldatzeko. Maila honetan, estrategia berriaz eta testuinguruan kokatuta zehazten da.

Zuzendaritza-taldeen zeregina

Zuzendaritza-taldeek **lidergo pedagogiko estrategikoa** dute, eta eginkizun erabakigarriak dituzte:

- (barneko eta kanpoko) emaitzen azterketa sistematikoa bultzatzea
- datuen interpretazio pedagogiko partekatua sustatzea (ziklo-taldeak, departamentuak, batzorde pedagogikoak, klaustroak)
- Hobetzeko helburu errealistak eta ebaluagarriak lehenestea
- batez ere ikastetxearen heziketa-proiektuaren (IHP), ikastetxearen urteko planaren (IUP) eta memoriaren arteko koherentzia bermatzea
- koordinazio-egiturak eta hobetzeko denborak erraztea
- estrategia ikastetxeko proiektu gisa hedatzen dela bermatzea, ez jarduketan batura gisa.



Hezkuntza-orientazioko taldearen zeregina

Orientazioko taldeak egiturazko zeregina betetzen du estrategian:

- Ikuspegi integrala ematen du ikaskuntzari, ongizateari eta bizikidetzari buruz.
- Irakasleei emaitzak interpretatzen laguntzen die.
- Ohiko ikasgelatik neurri unibertsal inklusiboak eta prebentziozkoak bultzatzen ditu.
- Tutoretza eta ikasketa-orientazio pertsonala indartzen ditu.
- Lagundu egiten du hobetzeko erabakiak ikasleen aniztasunaren araberakoak izan daitezen.

BeA figuraren zeregina

Horiek horrela, BeA figurak (ikastetxeko hezkuntza-berrikuntzako arduraduna) funtsezko zeregina du. [Ikastetxe publikoetan hezkuntza berritzeko jarduera-esparrua: BeA figurak \(2025-2028\)](#) dokumentuaren arabera, irakaskuntzako prestakuntza-planaren prestaketa eta dinamizazioa gidatu behar du, plana ikastetxearen hobekuntza-ekintzekin bateratu eta ikasgelan eragina izango duela ziurtatu. Prestakuntzaren, berrikuntzaren eta ebaluazioaren arteko loturailana egiten du, eta, horretarako, HeziLab zentroaren eta esleitutako aholkulari-sarearen laguntza teknikoa izango du.

Estrategiaren esparruan, BeA figura strategiaren dinamizatzaile eta koordinatzaile pedagogikoa da ikastetxean:

- Ebaluazioa, berrikuntza eta prestakuntza uztartzen ditu.
- Ikastetxeko diagnostiko pedagogikoaren burua da.
- Helburu zehatzei lotutako eraldaketa metodologikoa bultzatzen du.
- Ikastetxeak irakasleentzat duen prestakuntza-plana dinamizatzen du.
- Irakasleei laguntzen die praktikan jartzen.

3.3. Mikro maila: ikasgela eta irakasle-jarduna

Ikasgelan gauzatzen da strategiaren benetako zentzua.

Maila honetan gauzatzen dira:

- metodologia aktiboak eta konpetentzialak
- irakaskuntzan integratutako prestakuntza-ebaluazioa



- ikaskuntzaren pertsonalizazioa
- aniztasunari erantzutea
- emozioen eta harremanen alderdiari kontzienteki arreta jartzea
- tutoretza-lan sistematikoa
- gela arruntaren barruan neurriak eta laguntzak era pedagogikoan erabiltzea

Irakasleak, ikastetxeko eta sistemako egituren laguntzarekin, protagonista dira hobekuntzan.

4. HIRU ZUTABE ESTRATEGIKOAK ETA HAIEN PROGRAMAK

Estrategiak hiru zutabe osagarri ditu, modu integratuan hedatu behar direnak.

Zutabe estrategikoak:

- **Ebaluazio-sistema integral bat**, hobekuntza pedagogikorako, ekitaterako eta erabaki informatuak hartzeko tresna izateko pentsatua.
- **Matematikarako, irakurketarako eta zientziarako konpetentziak hobetzea**, zentzuzko ikaskuntza konpetentzialaren ardatz gisa.
- **Bizikidetzaren positiboa eta hezkidetzakoa erakitzea**, ikasle guztientzat ingurune seguruak, berdinzaleak, inklusiboak eta emozio aldetik osasungarriak direnak sustatuko dituenak.

1. zutabea. Ebaluazio-sistema integrala

Lehenengo zutabearen, **ebaluazio-sistema integral bat** bultzatzeko zereginean jartzen da arreta; sistema hori **hezkuntza-sistemaren kalitatea, ekitatea eta eraginkortasuna hobetzeko funtsezko tresna** izateko pentsatuta dago.

a) Makro maila: hezkuntza-sistema

Makro mailan, Hezkuntza Sailak **ebaluazio-eredu propio bat** bultzatzen eta finkatzen du, hezkuntza-sistemaren kalitatea, ekitatea eta eraginkortasuna hobetzera bideratua, bai eta emaitzen erabilera pedagogikoa indartzera ere, erabakiak hartzeko oinarri gisa.

Esparru horretan, **ISEIk** funtsezko zeregina betetzen du ikasleen errendimendu akademikoari, ekitateari, bizikidetzari eta ongizateari buruzko **datuak biltzen, aztertzen eta interpretatzen**, eta ebidentzia zorrotzak sortzen ditu hezkuntza-politikak eta ikastetxeentzako laguntza orientatzeko.



Horrekin batera, Ebaluazio Foroa hausnarketarako eta kontraste teknikorako gun e egonkor gisa finkatzen da, eta bertan hezkuntza-ebaluazioaren arloko adituek eta ospe handiko pertsonak parte hartzen dute. Haren barruan, hezkuntza-sistemaren, programen eta irakaskuntza-praktikaren ebaluazioari lotutako proiektuak garatzen dira, eta bide ematen zaio ebidentzietan eta adituen ezagutzan oinarritutako hausnarketa partekatuari. Foroaren ekarpenek ebaluazio-prozesuen koherentzia eta baliagarritasuna hobetzen laguntzen dute, baita sailaren erabaki estrategikoei buruzko informazioa ematen eta ikastetxeen laguntza pedagogikoa testuinguruan kokatutako ikuspegi batetik bideratzen ere.

Kanpoko ebaluazio diagnostikoei dagokienez, saila neurriak hartzen ari da horiek **benetako eragina izan dezaten ikaskuntzen hobekuntzan**. Neurri horien artean, hauek nabarmentzen dira:

- **txosten argi eta zehatzak** egitea, ikastetxeei emaitzen interpretazio pedagogiko bat emango dietenak;
- **prestakuntza-eskaintza instituzionala** atzemandako beharretara egokitzea, irakasleen prestakuntzak ikastetxeetan eta sisteman identifikatutako erronkei erantzun diezaien;
- eta **familiak inplikatzeko** eta ebaluazioen zentzua eta ebaluazio horiek hezkuntza-prozesuari egiten dioten ekarpena ulertzen dituztela ziurtatzea.

Era berean, **konpetentziei** eta testuinguruari **lotuago dagoen ebaluazio-eredu baterantz** aurrera egiten da pixkanaka; eredu horretan, itemek egoera errealei aplikatutako ikaskuntzak ebaluatzen dituzte. Prozesu horretan, ebaluazio diagnostikoaren eredu diseinatzeko eta berrikusteko zereginean irakasleek duten parte-hartzea indartzen da, bi helbururekin: batetik, eredu hori ikasgelako errealitatera egokitzen dela ziurtatzea, eta, bestetik, ebaluazio-tresnak berak irakaskuntza-jardunera transferi daitezkeen erreferente didaktiko izatea.

Euskal hezkuntza-sistemak, gainera, nazioarteko erreferentzia-esparruak ditu oinarri, hala nola PISA, bere politika publikoen eta ebaluazio-tresnen diseinua kontrastatzeko eta orientatzeko, testuinguruan kokatutako eredu propio bati eutsiz betiere. 2028rako aurreikusitako edizioan parte hartzeak aukera emango du sistemak 2024-2028ko ziklo estrategikoan egindako aurrerapenak kanpoan baloratzeko.

Azkenik, **barne-ebaluazioari** dagokionez, Haur Hezkuntzako, Oinarrizko Hezkuntzako eta Batxilergoko Ebaluazio Aginduak konpetentzien ikuspegia indartzen du, eta funtsezko printzipiotzat ezartzen du ebaluazioa eguneroko irakaskuntzan txertatzea. Araudi horrekin bat etorritik, sailak helburu hauek dituzten jarduketak bultzatzen ditu:

- barne-ebaluazioaren **emaitzen analisisa sistematizatzea**
- **irakasleek** beren praktikari eta eraginari buruz **gogoeta egiteko kultura** indartzea



- **ikasleen autoebaluazioa eta ebaluazio partekatua** sustatzea
- eta modu esplizituan lotzea ebaluazio eta berrikuntza pedagogikoa, ebaluazioa hezkuntza-sistema **etengabe hobetzeko benetako palanka** izan dadin

b) Erdiko maila: ikastetxea

Erdiko mailak ebaluazio-sistema integrala eraginkortasunez ezartzeko ikastetxeek betetzen duten zeregin nagusiari egiten dio erreferentzia, pedagogian eta antolaketan hobetzeko tresnatzat hartuta ebaluazioa.

Maila honetan, ebaluazioaren balioa ez da datuak eskuragarri izatea soilik, baita ikastetxeak datu horiek aztertzeke, interpretatzeko eta modu sistematikoan erabiltzeko gaitasuna izatea ere, hezkuntza-erabakiak hartzeko oinarri gisa. Horretarako, ikastetxeek funtsezko hiru mekanismo finkatu behar dituzte, elkarri estu lotuta.

- Lehenik eta behin, **emaitzen analisi eta interpretazio pedagogikoa**. Ikastetxeek barne-ebaluazioetatik eta kanpo-ebaluazioetatik datorren informazioa dute. Informazio horrek ikuspegi zabala ematen du ikasleen ikaskuntzei buruz eta ikaskuntza horiek errazten edo zailtzen dituzten baldintzei buruz. Informazio hori modu hezigarrian erabiltzeko, interpretazio partekatua, testuinguruan kokatua eta hobekuntzara bideratua behar da, aukera ematen duena indarguneak identifikatzeko, esku hartzeko lehentasunezko eremuak detektatzeko eta hobekuntza-helburu errealistak eta ebaluagarriak definitzeko. Prozesu horretan, hezkuntzako ikuskaritzak zuzendaritza-taldeei laguntza emango die datuak interpretatzeko eta ondorio pedagogiko garrantzitsuak ateratzeko gaitasun handiagoa izan dezaten.
- Bigarrenik, **ebaluazioa ikastetxeko hobekuntza-prozesuetan txertatzea**. Ebaluazioak zentzua hartzen du pedagogia-, antolamendu- eta metodologia-jardunbideetan benetako aldaketak bideratzeko erabiltzen denean. Esparru honetan, ebaluazioaren emaitzak berariaz sartu behar dira ikastetxearen plangintzan; batez ere, **Ikastetxearen Urteko Planean (IUP)**. Kontua da lotura argia egotea aztertutako datuen, lehenetsitako hobekuntza-helburuen eta ezartzea erabakitzen den ekintzen artean. Horrela, ebaluazioak aukera ematen du zer estrategia funtzionatzen ari diren, zein doitu behar diren eta zer laguntza gehigarri behar diren aztertzeke.
- Hirugarrenik, **ebaluazioan laguntzea eta ebaluatzeko prestatzea**. Ebaluazioaren erabilera pedagogikoa indartzeko, ikastetxeen ebaluazio-gaitasuna hobetzeko laguntza-programak garatuko dira, zuzendaritza-taldeei eta irakasleei arreta berezia eskainiz. Laguntza horri esker, ebaluazioa modu naturalean integratuko da irakaskuntzaren, ikaskuntzaren eta eskola-giroaren hobekuntzan, eta planteamendu formalak edo administratibo hutsak saihestuko dira.



Prozesu horretan, **zuzendaritza-taldeek** eta **BeA figurak** funtsezko zeregina betetzen dute. Zuzendaritza-taldeek bermatzen dute ebaluazioa egituraren ardatz bat izatea ikastetxearen plangintzan eta erabakiak hartzeko orduan; BeA figurak, berriz, prestakuntza- eta kompetentzia-ebaluazioa ikuspegi pedagogikotik bultzatzen du, emaitzak berrikuntza metodologikoarekin eta irakasleen prestakuntzarekin lotuz.

c) Mikro maila: ikasgela eta irakasle-jarduna

Mikro mailak arreta jartzen du eguneroko irakasle-jardunean eta ikasleek ikasgelan zuzenean duten esperientzian. Hor ikusten da ebaluazioa ikaskuntza pertsonalizatzeko eta etengabeko hobekuntzarako **heziketa-tresna bete-betekoa** dela.

Haur Hezkuntzako, Oinarrizko Hezkuntzako eta Batxilergoko Ebaluazio Aginduak (2024) ebaluazio hezigarri eta hezitzailean oinarritutako ikuspegi bat ezartzen du; ebaluazio horrek irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan integratua behar du, eta ikasle bakoitzak atzerelikadura nabarmena, ulergarria eta baliagarria jasoko duela bermatzera bideratua, ikasleak ikaskuntzan modu autonomoan eta zentzuz aurrera egiteko.

Ikuspegi horretatik, ikasgelako ebaluazioa etengabeko prozesua da, eta aukera ematen die irakasleei **hezkuntzako esku-hartzea egokitzeko**, ikasleen premiak identifikatzeko eta haiei kompetentzietan aurreratzen laguntzeko. Horretarako, **askotariko prozedurak eta tresnak** erabiltzea sustatzen da —hala nola errubrikak, behaketa-erregistroak, autoebaluazioak eta ebaluazio partekatua—, ikasleei beren indarguneak eta hobetu beharreko alderdiak ulertzen laguntzeko, eta **ikaskuntzaren autoerregulazioa** indartzeko.

Tutoretzak funtsezko zeregina du maila honetan. Irakasle tutoreek ikasleentzako laguntza pertsonalean eta akademikoan txertatzen dute ebaluazioaren emaitzen analisia, eta, hala, hauek indartzen dira: **banakako tutoretza-saioak**, familiekiko komunikazioa eta behar duten ikasleentzako neurri eta laguntza egokituen plangintza. Ebaluazioak, hala, hezkuntza-erantzun pertsonalizatuago bat ematen laguntzen du, hezkuntza-sistemaren inklusio- eta ekitate-printzipioekin koherenteagoa dena.

Euskal hezkuntza-sistemaren eraldaketa pedagogikoaren eta digitalaren esparruan, Hezkuntza Sailak **EKHA aplikazioa pixkanaka ezartzera** bultzatzen du, kompetentzien ebaluazioan laguntzeko tresna izateko. Aplikazio horrek aukera ematen du ikasleen ikaskuntza erregistratzeko, aztertze eta haren jarraipen sistematikoa egiteko, haien aurrerapenaren ikuspegi globala eta etengabea ematen du eta ebaluazioa eguneroko irakasle-jardunean txertatzen laguntzen, betiere ikaskuntza hobetzeko.



2. zutabea: Matematikarako, irakurketarako eta zientziarako kompetentziak hobetzea

Matematikako, irakurketako eta zientzietako funtsezko kompetentzien emaitzak hobetzea lehentasunetako bat da euskal hezkuntza-sisteman. Helburu hori lortzeko, Hezkuntza Sailak **bi ildo estrategiko handi** jorratzen ditu:

- **Funtsezko kompetentziak berariaz indartzea**, egitura komun batekin diseinatutako hiru indartze-programa hauen bidez:
 - [Matematikarako kompetentzia indartzeko programa](#)
 - [Irakurtzeko kompetentzia indartzeko programa](#)
 - [Zientziarako kompetentzia indartzeko programa](#)
- **Eraldaketa metodologikoa**, barnean dela **DBHn** eremukako lana ezartzea eta **Batxilergoan** egokitzapen metodologikoa egitea, PAEren kompetentzia-ikuspegi berriaren aurrean.

Estrategia horiek esku hartzeko **hiru mailaren** bidez ezartzen dira:

a) Makro maila: hezkuntza-sistema

Hezkuntza Sailak metodologia komun batekin egituratu ditu [hiru indartze-programak](#), esku hartzean koherentzia bermatuz. Programa bakoitzak zazpi jarduketa ditu, eta lehenengo laurak makro mailan hedatzen dira:

- Kompetentzia bakoitzean **espezializatutako batzorde tekniko bat sortzea**, programa gainbegiratu eta ebaluatzeko.
- **Aholkularitza espezializatuen taldeak eratzea** ikastetxeen beharretara egokitutako prestakuntza, materialak eta estrategiak diseinatzeko.
- **Baliabide eta material didaktikoak lantzea**, irakasleentzako gida metodologikoak eta ikasleentzako materialak barne.
- Irakasleentzako **prestakuntza** espezifikoa, ikuspegi praktikoa duena, estrategiak ikasgelan integratzen laguntzeko.

Gainera, **eraldaketa metodologikoaren esparruan**, funtsezko bi estrategia bultzatuko dira aurrerantzean ere:

- Osagarri gisa, sailak eraldaketa metodologiko progresiboa bultzatzen du hezkuntza-sistemaren funtsezko etapetan. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, arlokako lanaren ezarpena indartuko da 1. eta 2. mailetan, diziplinarteko ikaskuntza errazteko, ikasleei kompetentziak eskuratzen laguntzeko eta irakasleen koordinazioari bide emateko



estrategia gisa. Prozesu hori [Euskal Autonomia Erkidegoaren funts publikoen bitartez finantzaturako ikastetxeetan eremuen arabera lana ezartzeko markoan](#) oinarrituta dago. Marko horrek **ereduaren antolamendu-, curriculum- eta pedagogia-oinarriak** ezartzen ditu, eta funtsezko alderdiak arautzen ditu, hala nola eremuen arabera lanaren definizioa, justifikazioa eta helburuak, ikastetxeentzako eta irakasleentzako antolamendu-neurriak, printzipio metodologikoak eta eremuen curriculum-konfigurazioa, tutoretzaren, hizkuntzen eta ikasleen ebaluazioaren tratamendua, bai eta kalifikazio- eta sustapen-irizpideak ere.

- Batxilergoan, modalitate guztietan komunak diren ikasgaien **egokitzapen metodologiko progresiboa** sustatuko da, bat etorritik **unibertsitaterako sarbide-probaren (USP) kompetentzia-ikuspegi berriarekin**. Egokitzapen horren helburua da irakaskuntza eta ikasleen kompetentzia-eskaerak bat egitea, arazoitzen, ezagutza aplikatzen eta edukiak ondo ulertzen laguntzen duten metodologiak indartuz.

Makro mailan, jarduketa horiek aukera ematen dute **erreferentzia-esparru komun bat ezartzeko**, programen, metodologiaren eta prestakuntzaren arteko koherentzia bermatzeko, eta ikastetxeek funtsezko kompetentziak hobetzeko estrategia eraginkorrek testuinguruaren arabera aplikatu ahal izateko behar diren baldintzak sortzeko.

b) Erdiko maila: ikastetxea

Erdiko mailan, ikastetxe bakoitzak **irakurketan, matematikan eta zientzietan hobetzeko estrategia espezifikoak diseinatzeko** aztertu behar ditu bere emaitzak barne- eta kanpo-ebaluazioetan. Horretarako, funtsezko **hiru ekintza** bultzatzen dira:

- **Datueta oinarritutako analisiak egitea eta erabakiak hartzea:** ikastetxeek barne- eta kanpo-ebaluazioaren emaitzak xeheki aztertu behar dituzte, hobekuntza-arloak identifikatzeko eta kompetentzia bakoitzerako estrategia espezifikoak diseinatzeko.
- **Irakurketa curriculumeko arlo guztietan sistematizatzea:** ikastetxe guztiek bermatu behar dute ikasleek egunero irakurtzen dutela eta, aldi berean, arlo, ikasgai edo esparru guztietan irakurtzen dutela, eta irakurmena hobetzeko strategiak aplikatu behar dituzte.
- **Indartze-programak ikastetxeetako hobekuntza-ekintzetan integratzea.**

Testuinguru horretan, ikastetxe askotan jada garatzen ari ziren indartze-programak eta -proiektuak berrikusten eta eguneratzen ari dira Hezkuntzako Emaitzak Hobetzeko 2025-2028ko Estrategia Integralaren barruan, haren funtsezko lehentasunekin bat etortzeko: oinarritutako kompetentziak indartzea, pedagogia- eta antolaketa-praktikak hobetzea eta hezkuntza-desberdintasunak murriztea.



Orientazio berri horrek ez du esan nahi hutsetik abiatu behar denik, baizik eta **dagoen ekimen bakoitzaren balio eraldatzailea indartu** behar dela, ikasleen ikaskuntzetan duen eragina eta ikastetxeko beste hobekuntza-prozesu batzuekin duen artikulazioa indartuz. Estrategia komun horren bidez, jarduketa **integratuagoa, eraginkorragoa eta koherenteagoa** izatea sustatzen da, ebidentzietan eta ikastetxeen eta administrazioaren arteko konpromiso partekatuan oinarritua.

Orain, hezkuntza indartzeko programa eta proiektu nagusiak deskribatuko ditugu, bai eta horiek estrategia integralarekin bat etortzeko egindako aldaketak ere, haien espezifikotasuna errespetatuz eta ikastetxeetako errealitate bakoitzera egokituz. Guztiek ere behar bezala integratuta egon beharko dute ikastetxeek planifikatutako eta Ikastetxearen Urteko Planean (IUP) jasotako hobekuntza-ekintzetan.

- [Eraldatzen programa-kontratua](#) (konplexutasun handiko zentroetan).

Programa Hezkuntzako Emaizak Hobetzeko Estrategia baino lehen hasi zen, eta orain **estrategiaren lehentasunetara egokitzen ari da eta harekin bateratzen**, bereziki **irakurmena eta matematika- eta zientzia-arloko kompetentziak** garatzeari, ikasgelako praktikak hobetzeari eta lidergo pedagogikoa indartzeari dagokienez.

Eraldaketa hori indartzeko, programa **Eraldatzen Sarearen bidez** egituratuta dago, zeinak ikastetxeen arteko elkarlana sustatzen baitu. Ikasturte honetan, sarea **gaikako azpisareak** antolatzen hasi da. Azpisare horietan, **antzeko errealitateak** dituzten ikastetxeek parte hartzen dute, eta **hobetzeko palanka berari** heltzen diote. Gaur egun, azpisare hauek daude aktibo:

- Haur eta Lehen Hezkuntzako irakurketa-estrategiak
- Ikasgelan komunikazio-kompetentzia garatzekoa
- Lehen Hezkuntzan irakurzaletasuna sustatzekoa
- Irakurritakoa ulertzeko DBHko estrategiak
- Matematika manipulatioak
- Bizikidetzaren positiboaren eraikuntza

Azpisare horiek profesionalen sorkuntza partekaturako, hausnarketarako eta trukerako espazioak dira, baliabide partekatuak garatzeko eta benetako hobekuntza-prozesuetan laguntzeko aukera ematen dutenak. Horrela, Eraldatzen programa-kontratua **ekitatearen, inklusioaren eta hezkuntza-hobekuntzaren zerbitzura dagoen tresna estrategiko** gisa finkatzen da konplexutasun handiko testuinguruetan.

- [Hezkuntzan Berariaz Sendotzeko Proiektua](#)

Proiektu honetan parte hartzen duten ikastetxeetan, hezkuntza indartzeko metodologiak egokituko dira, eskura dauden baliabideak Hobekuntza Estrategian ezarritako lehentasunekin bat etortzeko. Hezkuntzan Berariaz Sendotzeko Proiektua (HBSP) estrategia hori hedatu baino lehenagokoa bada ere, ematen dituen giza baliabideak eta antolaketa-baliabideak



[matematika-, irakurketa- eta zientzia-kompetentziak indartzera](#) bideratu behar dira lehentasunez, bai eta [eremukako lana](#) sustatzera ere, batez ere baterako irakaskuntza-modalitatean.

- [BIDELAGUNA programa](#)

Programa hau modu esplizituan dator bat estrategiarekin; bereziki, [irakurmena](#) eta [matematikarako kompetentzia](#) indartzeko programekin. Horretarako, Bidelaguna proiektuek asteen gutxienez ordubeteko lan espezifikoak izan behar dute bi kompetentzia horietako bakoitzean.

Programa garatzeko, koordinazio estua behar da irakasleen, begiraleen, zuzendaritza-taldearen eta familien artean. Koordinatzailearen ardura izango da programaren jarraipena egitea; ikastetxeak kompetentziak indartzeko dituen beste programa batzuekiko koherentzia bermatu beharko du, eta inplikaturako eragile guztien arteko lankidetzak sustatu

Hezkuntza Sailak **orientabide metodologikoak eta material didaktikoak eskainiko dizkie** ikastetxeei; bereziki, hauei dagokienez:

- **Irakurmena**; eta hauek azpimarratuko dira: testuak ulertzea, estrategia kognitiboak garatzea (inferentzia, iragarpena, sintesia, eta abar) eta argudiatuz eztabaidatzea interpretazio kritikoa sustatzeko.
- **Matematikarako kompetentzia**, ardatz duena problemak arrazoiketaren, argudiaketaren eta baliozkotzearen ikuspegitik ebaztea, eta ikaskuntza kooperatiboa eta hausnarketa kolektiboa sustatzen dituenak.

Programa hori euskal hezkuntza-sistemaren laguntza-neurri unibertsalen esparru orokorraren barruan dago, kalitatezko hezkuntza ekitatibo eta inklusiboa bermatzeko estrategiaren zati gisa.

- [Indartuz neurria](#): **eskolaz kanpoko irakurketa- eta matematika-indartzeak.**

Indartuz neurria eskolaz kanpoko hezkuntza-errefortzuko jarduketak bat da, irakurmenean edo matematika-kompetentzian laguntza behar duten Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailako ikasleentzakoak, eta 2024-2025eko ikasturtean ezarri zen lehen aldiz. Hezkuntza Sailak [irakurmena](#) eta [matematikarako kompetentzia](#) indartzeko bultzatutako programen barruan dago, eta funtsezko ikaskuntzak finkatzea, errendimendu-arrakalak murriztea eta hezkuntza-laguntza pertsonalizatzea du helburu.

Parte hartzeko ikastetxeak hautatzeko irizpideetako bat etaparen erdiko Ebaluazio Diagnostikoaren emaitzetan oinarritzea izan da, arreta berezia jarriz (euskaraz edo gaztelaniaz) irakurriaren ulermenean eta matematikarako kompetentzian errendimendu txikia duten ikasleentzakoari.



- [Hezi proiektua+](#):

Hezi+ proiektuaren helburua da hezkuntza-emaitzak hobetzea eta eskola-ekitatea eta -kohesioa sustatzea, ikasteko espazioak, denborak eta moduak zabalduko dituen eta ingurunearekiko eta ikastetxearekiko berarekiko lotura afektiboa eta soziala sustatuko duen berrantolaketa pedagogiko eta tenporal baten bidez.

Proiektuaren neurrietako bat He-Indartuz da. Neurri honen xedea irakurmena eta matematikarako konpetentzia indartzeko jarduketak garatzea da, HeziLab Ikaskuntzarako Berrikuntza Zentroaren jarraibideen arabera, bai eta aurreko ikasturteetan gainditu gabeko ikasgaiak dituzten ikasleei eta ikasturtean zehar ebaluazioetan ikasgairen edo esparruren baten konpetentzia-ebaluazioa gainditu ez dutenei hezkuntza-errefortzua ematea ere.

He-Indartuz [Indartuz](#) ereduaren Bigarren Hezkuntzako testuingurura egokitzeko moldaketa da, eta Hezi+ proiektua eta hobetzeko helburu estrategikoak bat etortzeko prozesuaren barruan dago. Plana ezartzeko, beharrezkoa da **plangintza didaktiko espezifikoa egitea, tartean diren irakasleak koordinatzea, ikasleen jarraipen sistematikoa egitea eta prestakuntza-ekintzetan parte hartzea.**

Hobekuntza-ekintza horiek behar bezala aurrera eramateko, ikastetxeek plangintza estrategikoa egin behar dute, irakasleek konpromisoa hartu behar dute eta ebaluazioa, metodologiak eta baliabideak modu eraginkorren antolatu behar dira. Prozesu horretan, BeA figurek funtsezko zeregina betetzen dute; haien eginkizunen artean, izan ere, ikastetxean barne-prestakuntza dinamizatzea dago, lehentasun estrategikoei lotua bera. Gainera, irakasle-taldeei laguntzen diete premiak identifikatzen, metodologia egokitzen eta baliabide didaktiko berritzaileak erabiltzen, eta, horri esker, hobekuntza-ekintzek benetako eragina dute ikasleen ikaskuntzan eta ikastetxeko eguneroko jardunean integratzen dira.

c) Mikro maila: ikasgela eta irakasle-jarduna

Mikro mailan, irakurmenaren eta matematika- eta zientzia-konpetentzien hobekuntza ikasgelako eguneroko jardunean gauzatzen da. Maila honetan, estrategia ez da jardueren metaketa gisa hartzen, baizik eta irakaskuntzaren nahitako doikuntza gisa, konpetentzia-ikasuntza sendoagoak, errazago transmititu daitezkeenak eta iraunkorragoak ziurtatzeko.

Horrekin bat etorritik, irakasle-lanak estuki lotutako lau jarduera-ildotan jartzen du arreta:

- **Irakurketa sistematikoa arlo, ikasgai edo esparru guztietan.** Irakasleek bermatzen dute ikasleek **egunero irakurtzen** dutela eta irakurketa modu esplizituan lantzen dela curriculum osoan, irakurketa edozein ikasgaitan ikasteko tresnatzat hartuta hobeto ulertzeko eta erabiltzeko estrategiak txertatuz.



- **Metodologia aktiboak matematikan eta zientzietan.** Arreta **problemen ebazpenean**, esperimentazioan eta metodo zientifikoan jartzen duten irakaskuntza-ikuspegiak indartzen dira, eta, hala, ikasleek ezagutza testuinguru esanguratsuetan **arrazoizten, aplikatzen eta komunikatzen** ikasten dute, prozedurak errepikatzeaz harago.
 - **Prestakuntza-ebaluazioa eta ikaskuntzaren pertsonalizazioa.** Ebaluazioa ikasleen aurrerapena gidatzeko eta irakasleen esku-hartzea egokitzeko txertatzen da irakaskuntzan; beste praktika batzuk gehitzen dira, hala nola errubrikak, autoebaluazioa eta ebaluazio partekatua, ikasleek prozesuaren kontzientzia har dezaten eta laguntza doiarekin aurrera egin dezaten.
 - **Konpetentzien araberako ebaluazioaren erabilera progresiboa.** Eraldaketa pedagogikoaren eta digitalaren esparruan, konpetentzia-ebaluazioaren aplikazioa mailaka ezartzera bultzatzen da, ebidentziak erregistratzeko, aurrerapenaren jarraipena egiteko eta irakaskuntza pertsonalizatuagoa eta jarraituagoa errazteko euskarria izan dadin.
- **3. zutabea: Bizikidetzeta eta ongizate emozionala**

Hobekuntza Estrategiaren hirugarren zutabe honek zuzenean erantzuten dio **Euskal Eskola Publikoaren 2025-2028ko Plan Estrategikoaren 7. ardatzari**. Ardatz horren lehentasunezko helburua da **ikasleen bizikidetzeta positiboa, hezkidetzeta eta ongizate sozioemozionala sustatzea**, ikuspegi komunitario, errestauratibo eta inklusibo batetik. Eremu horretan hartzen diren neurriek —BAT taldeak indartzetik hasi, eta tutoretza-ekintzako programa orokortzera eta ikasgelan hezkuntza emozionala sistematikoki lantzerainokoak— planeko trakzio-ekintzak eta neurriak betetzen laguntzen dute, zeinek arreta jartzen baitute bizikidetzaren egitura instituzionala indartzean eta elkarrekiko zaintzaren, ikasleen parte-hartze aktiboaren eta kaltearen erreparazioaren kultura sustatzean.

Euskal hezkuntza-sistemak **bizikidetzeta-eredu bat finkatzeko** erronka du: eredu horrek, jokabide desegokien aurreko erantzuna arautu bakarrik ez, prebentzioa, hezkuntza sozioemozionala eta hezkuntza-komunitate osoaren parte-hartze aktiboa lehenetsi behar ditu, ikaslearena berarena bereziki.

a) Makro maila: hezkuntza-sistema

Makro mailan, Hezkuntza Sailak **bizikidetzarako eta ongizaterako esparru komun, prebentibo eta hezigarri bat** ezartzen du, eskola-ingurune seguruak, inklusiboak eta emozionalki osasungarriak bermatzeri begira, ikaskuntzarako eta eskola-arrakastarako baldintza gisa.



Erantzukizun sistemiko horretatik, ildo estrategiko hauek finkatzen dira:

- **Bizikidetzaren arau-esparrua eta esparru estrategikoa definitzea**, Euskal Eskola Publikoaren 2025-2028ko Plan Estrategikoaren 7. ardatzarekin bat etorriz. Ardatz horrek prebentzioa, hezkuntza sozioemozionala, hezkidetza eta ikuspegi lehenetzaileak lehenesten ditu, eredu zehatzaile hutsen aldean.
- **Bizikidetzarako egitura egonkorak bultzatzea**, BAT taldeen eta ongizatearen eta babesaren koordinatzaileen zeregina indartuz, zentro guztietako erreferente instituzional gisa.
- **Bizikidetzari, eskola-jazarpenari eta jokabide suizidari buruzko prestakuntza, programak eta protokoloak bateratzea**, ikuspegi prebentibo, hezigarri eta errestauratibotik.
- **Ikastetxeei laguntza teknikoa eta prestakuntza ematea**, Bizilaben eta eskaintza instituzionalaren bidez, jarduketetan koherentzia, ekitatea eta jasangarritasuna bermatuz.

Maila honek ziurtatzen du bizikidetzari eta ongizateari ez direla jarduketari isolatu gisa jorratzen, baizik eta **egiturazko hezkuntza-politika** gisa, sistemaren emaitzen hobekuntzan integratuta.

b) Erdiko maila: ikastetxea

Erdiko mailan, bizikidetzari eta ongizateari **ikastetxearen proiektu estrategikoak** dira, plangintzan, antolaketan eta eskola-kulturan integratuta daudenak.

Ikuspegi horretatik, ikastetxeek:

- **Eskolako giroa eta ikasleen ongizatea sistematikoki aztertzen dituzte**, autodiagnostikorako tresnak eta ebidentzia kualitatiboak eta kuantitatiboak erabiliz, erabakiak hartzeko oinarri gisa.
- **Bizikidetzari positiboa, hezkidetza eta ongizate sozioemozionala txertatzen dituzte Ikastetxearen Urteko Planean (IUP)**, eta hobekuntza-helburu koherenteak, lehenetsitako ekintzak eta jarraipen-irizpideak definitzen dituzte.
- **BAT taldeen zeregina indartzen dute**; izan ere, gorabeheren kudeatzaile hutsak izateari utziko diote, eta ikastetxe osoan prebentzioaren eta parte-hartzearen kultura errestauratiboa sustatzeko egitura gisa jarduteari ekingo.



- **Modu sistematikoan aplikatzen dute tutoretza-programa**, eta, hala, gune egonkorak bermatzen dituzte garapen sozioemozionalerako, balioetan hezteko, gatazkak era positibo batean kudeatzeko eta ikasleek aktiboki parte hartzeko.
- Eskolako leku guztietan (ikasgelan, patioetan, jangelan, jarduera osagarrietan) ingurune seguruak sustatzen dituzten **antolaketa- eta pedagogia-neurriak antolatzen dituzte**, eta arreta berezia jartzen dute edozein indarkeria motaren prebentzian.

Zuzendaritza-taldeek, ongizatearen koordinatzaileekin batera, jarduketa horien, ikastetxearen plangintza estrategikoaren eta esparru instituzionalen arteko koherentzia bermatzen dute, **BiziLaben** laguntza espezializatuarekin.

c) Mikro maila: ikasgela eta irakasle-jarduna

Mikro mailan, bizikidetza eta ongizatea **ikasleen eguneroko esperientzian** eraikitzen dira, interakzioen, praktika pedagogikoen eta tutoretza sistematikoaren bidez.

Maila honetan, irakasleek:

- **Hezkuntza sozioemotionala eta bizikidetza positiboa** ikasgelako eguneroko jardunean integratzen dituzte, eta ikaskuntza, parte-hartzea eta kidesun-sentimendua errazten dituen harreman-giroa sustatzen dute.
- **Taldeko eta banakako tutoretza-saioak** egiten dituzte, planifikatuta, ikasleen ongizate pertsonal eta akademikoan laguntzeko, autoestimua indartzeko eta arrisku-egoerak —halakorik badago— goiz detektatzeko.
- **Ikasleek** bizikidetzaren kudeaketan **aktiboki parte hartzea** sustatzen dute, bai gatazkak eragozteko kudeaketan, bai gatazkak modu hezigarri batean konpontzeko kudeaketan, eta, hala, haien erantzukidetasuna eta autonomia pertsonala indartzen dituzte.
- **Estrategia errestauratibo eta hezigarriak** aplikatzen dituzte, ikasleei beren ekintzen ondorioak ulertzen, erantzukizunak beren gain hartzen eta egindako kaltea konpontzen laguntzen dietenak.
- **Ingurune digitala** hezkuntza-espazio gisa erabiltzen dute, ezagueraz, eta horrela herritar digital arduratsuak sustatzen dituzte eta testuinguru birtualetan gatazkak eragozten.



5. URTEKO ZEHAZTAPENA: IKASTETXEAREN URTEKO PLANA, TRESNA ERABAKIGARRIA

Estrategia **Ikastetxearen Urteko Planean (IUP)** zehazten da ikasturte bakoitzean.

IUPk hau egin behar du:

1. **emaitzen azterketatik** abiatu;
2. **hobetzeko helburu lehenetsiak** definitu;
3. **hiru zutabeekin koherenteak diren ekintzak** hautatu;
4. arduradunak izendatu eta baliabideak esleitu;
5. jarraipenerako adierazleak ezarri;
6. irakasleen prestakuntza hautemandako beharrekin lotu.

IUPren jarraipena eta ebaluazioa **Urteko Memorian** jasotzen dira, eta hobekuntza-zikloa ixten da.

6. IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA, PALANKA ESTRATEGIKOA

Prestakuntza **hobekuntzaren zerbitzura dagoen tresna bat** da; ez helburu bat berez.

Hau bete behar du:

- ikastetxearen benetako premiei erantzutea;
- helburu zehatzei lotuta egotea;
- laguntza izatea eta transmititzea;
- BeA figuraren lidergoaren bidez artikulatzea;
- strategiaren hiru zutabeekin ezkontzea.

Erakundeen eskaintzak, praktika-komunitateek eta ikastetxeko prestakuntzak logika horri erantzun behar diote.



7. HEZILAB ETA BIZILAB, LAGUNTZEKO, AHOLKATZEKO ETA PRESTATZEKO EGITURA ESTRATEGIKOAK

7.1. Estrategiaren zentzua eta lekua

Bat etorri Euskal Eskola Publikoa Eraldatzeko I. Plan Estrategikoarekin (2025-2028), Hezkuntza Emaizak Hobetzeko Estrategia Integralak hezkuntza-sistemaren funtsezko egituratzat hartzen ditu HeziLab eta BiziLab, laguntza profesionala jarraitua eta koherentea dela eta lehenetsun estrategikoekin bat datorrela bermatzeko.

HeziLab eta BiziLab ez dira kanpoko edo unean uneko tresnatzat hartzen, baizik eta hurrengo bi ikasturteetan benetako eraldaketa-palanka gisa jardunez garapen profesionalari, berrikuntza pedagogikoari eta ikastetxeen antolamendu-hobekuntzari lagunduko dieten gune egonkortzat.

7.2. HeziLaben funtzio estrategikoa

HeziLab erreferentziazko esparrua da laguntza pedagogikorako, hezkuntza-berrikuntzarako eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak hobetzeko, hertsiki lotua hauekin:

- 2. zutabea, oinarrizko gaitasunak hobetzeko,
- 1. zutabea, hobetzeko ebaluazioa,
- eta Euskal Eskola Publikoaren Plan Estrategikoaren 4., 5. eta 10. ardatzak.

Ikuspegi horretatik, HeziLabek funtzio estrategiko hauek betetzen ditu:

- Ikastetxeei diagnostiko pedagogikoan laguntzea, barneko eta kanpoko emaitzen analititik abiatuta batez ere.
- Aholku ematea hobetzeko helburu errealistak, lehenetsiak eta strategiarekin bat datozenak definitzeko orduan.
- Eraldaketa metodologikoa bultzatzea, honako hauetan bereziki:
 - ikaskuntza kompetentziala
 - eremukako lana
 - prestakuntza-ebaluazioa
 - ikasgela arrunteko laguntza inklusiboak eta irakaskuntza partekatua
- Ebaluazioa, berrikuntza eta prestakuntza konektatzea eta jarduketak zatikatzea saihestea.
- BeA figurei babes ematea lidergo pedagogikoa izateko eginkizunean, esparruak, tresnak eta laguntza profesionala eskainiz.



HeziLab, beraz, sistemaren estrategiaren eta ikastetxeen praktikaren arteko bitartekaritza-egitura gisa jarduten da, hobekuntza-prozesuen koherentzia eta jasangarritasuna indartuz.

7.3. BiziLaben funtzio estrategikoa

BiziLab egitura estrategikoa da, ikastetxeei bizikidetzaren positiboaren, ongizate sozioemozionalaren eta ikasleen hezkuntza integralaren eremuan laguntzeko, eta hauekin bat dator, zuzen-zuzenean:

- 3. zutabea: bizikidetzaren, hezkidetzaren eta ongizate sozioemozionala,
- Plan Estrategikoaren 7. ardatza,
- eta Bizikidetzaren ekimena.

Estrategiaren esparruan, BiziLabek eginkizun nagusi hauek ditu:

- **Ikastetxeei aholku ematea eskola-giroaren analisian**, autodiagnostikorako tresnak eta ebidentzia kualitatibo eta kuantitatiboak erabiliz.
- **BAT taldeen garapenean laguntzea**, erreferentziako egitura gisa duten zeregina indartuz, eta ez soilik gorabeherak kudeatzeko organo gisa duten zeregina.
- **Ongizate sozioemozionala tutoretzan**, ikasgelako praktketan eta ikastetxearen antolaketan **txertatzen laguntzea**.
- Eskola-jazarpenaren eta jokabide suizidaren **protokoloak modu koherentean aplikatzen laguntzea**, prebentzioaren eta hezkuntzaren ikuspegitik eta ikuspegi errehabilitatibo batetik.
- **Irakasleen prestakuntza sustatzea**, ikastetxe bakoitzean hautemandako premiekin bat datorrena, bizikidetzaren, hezkuntza sozioemozionalaren eta hezkidetzaren.

BiziLabek, beraz, aukera ematen du emaitzen hobekuntzari **ikuspegi integral batetik** heltzeko, zeinetan ikaskuntzak eta ongizateak elkar indartzen duten.

7.4. HeziLab eta BiziLab erdiko mailan eta mikro mailan

Erdiko mailan, HeziLabek eta BiziLabek:

- zuzendaritza-taldeein plangintza estrategikoan laguntzen diete;
- aholku ematen dute IUP eta prestakuntza-plana egiteko orduan;
- lankidetzaren aritzen dira BeA figurekin eta orientazio-taldeekin.



Mikro mailan, ekarpen hau egiten dute:

- irakasle-jardunerako laguntza ematea;
- prestakuntza ikasgelara benetan transferitzea;
- metodologia eta antolaketa aldatzeko prozesuetan laguntzea;
- tutoretza eta ikasgelako giroa indartzea.

8. HEZKUNTZAKO IKUSKARITZAK ZER ZEREGIN DUEN ESTRATEGIAREN APLIKAZIOAN ETA JARRAIPENEAN

8.1. Ikuskaritza, koherentzia estrategikoaren bermatzaile

Hezkuntzako Emaidzak Hobetzeko Estrategia Integralaren barruan, Hezkuntzako Ikuskaritzak funtsezko zeregina betetzen du, ikastetxeetan estrategia aplikatzen denean koherentzia, ekitatea eta kalitatea bermatzen baititu.

Haren lana ez da arauak betetzen direla gainbegiratzea bakarrik; aitzitik, **dimentsio pedagogiko eta estrategikoa** du, Euskal Eskola Publikoaren Plan Estrategikoarekin bat datorrena.

8.2. Ikastetxearen Urteko Plana (IUP) eta Ikuskaritzaren zeregina

Ikastetxearen Urteko Planari (IUP) dagokionez, Ikuskaritzak:

- IUP barneko eta kanpoko emaitzen analitik abiatzen dela gainbegiratzen du;
- hobetzeko helburuak estrategiaren hiru zutabeekin bat datozela egiaztatzen du;
- helburuen, ekintzen, baliabideen eta adierazleen arteko koherentzia aztertzen du;
- programa estrategikoen integrazioa baloratzen du (konpetentzien indartzea, Bizikasi, ebaluazioa, eta abar);
- eta plangintza errealista eta eragitera bideratua izan dadin laguntzen du.

Ikuskaritzak **kalitatearen eta koherentziaren funtsezko elementu gisa** dihardu, beraz, eta planteamendu formalak edo administratibo hutsak saihesten ditu.



8.3. Ikastetxearen Urteko Memoriaren azterketan duen zeregina

Urteko Memoriari dagokionez, Ikuskaritzak:

- hobetzeko helburuak zenbateraino garatu diren aztertzen du;
- ebaluazioen emaitzen erabilera pedagogikoa baloratzen du;
- ekintzen eraginkortasuna aztertzen du;
- indarguneak eta hobetzeko eremuak identifikatzen ditu;
- eta etengabeko hobekuntzaren zikloa ixten laguntzen du, hurrengo IUPa orientatuz.

Memoria, beraz, **gogoeta estrategikoa egiteko tresna** gisa hartzen da, ez izapide huts gisa.

8.4. Estrategiari lotutako programen jarraipena

Ikuskaritzak estrategian sartzen diren programen jarraipenean parte hartzen du, saileko zerbitzuekin eta HeziLab eta BiziLab egiturekin koordinatuta, eta honako hauetan laguntzen du:

- ikastetxearen proiektuan behar bezala integratuta daudela egiaztatzea;
- ikaskuntzan eta ongizatean duten eragina baloratzea;
- Egokitzapenak egiteko edo laguntza gehigarriko premiak detektatzea;
- aplikatzean ekitatea ziurtatzea.

10. Itxiera

Hezkuntzako Emaitzak Hobetzeko Estrategia Integrala, beraz, Euskal Eskola Publikoaren Plan Estrategikoaren eta ikastetxeetako eta ikasgeletako eguneroko errealitatearen arteko zubi operatiboa da.

Haren balioa ez da programa berriak gehitzea, baizik eta daudenak **ordenatzea, bat etorraraztea eta haiei zentzu partekatua ematea**, eta lidergo pedagogikoa, kultura profesionala eta sistemaren koherentzia indartzea.

HeziLab, BiziLab eta Hezkuntza Ikuskaritza eragile estrategiko gisa esplizituki sartuta, Hezkuntzako Emaitzak Hobetzeko Estrategia Integrala **esparru benetan sistemiko** gisa finkatzen da. Esparru horretan:

- sailak orientazioa eta laguntza ematen du,
- ikastetxeek planifikatzen eta eraldatzen dute,
- irakasleek berritu eta hobetu egiten dute beren jarduera,
- HeziLabek eta BiziLabek aldaketa-prozesuei eusten diete,
- eta Ikuskaritzak koherentzia, kalitatea eta ekitatea bermatzen ditu.



HEZKUNTZAKO EMAITZAK HOBETZEKO 2025- 2028KO ALDIRAKO ESTRATEGIA INTEGRALA

**Bat dator Euskal Eskola Publikoa
Eraldatzeko I. Plan Estrategikoarekin
(2025-2028)**



1. ESTRATEGIA, PLAN ESTRATEGIKOA APLIKATZEKO TRESNA

Ikasturtea antolatzeko ebazpenean jasotzen den bezala, **Hezkuntzako Emaitzak Hobetzeko Estrategia Integrala bide nagusia** da **Euskal Eskola Publikoa Eraldatzeko 2025-2028ko aldirako I. Plan Estrategikoaren trakzio-ekintzen eta neurrien multzo nabarmen bat aktibatzeko.**

Plan estrategikoak **sistemaren ikuspegia, ardatzak eta konpromiso nagusiak** definitzen ditu; hobetzeko estrategiak, berriz:

- ardatz horiek **eraginkor bihurtzen ditu,**
- **lan-ildo pedagogiko zehatzetara** ekartzen ditu,
- eta era koherente batean artikulatzen ditu **makro mailan, erdikoan eta mikroan.**

Ikuspegi horretatik, estrategia ez da plan paralelo bat, baizik eta **plan estrategikoa gauzatzeko eta harekin koherente izateko tresna bat**, ikaskuntzarekin, ekitatearekin, bizikidetzarekin eta ebaluazioaren kulturarekin lotutako ardatzei dagokienez bereziki.

2. EGITURAZKO BAT-ETORTZEA: ESTRATEGIAREN ZUTABEAK ETA PLAN ESTRATEGIKOAREN ARDATZAK

Estrategiak **hiru zutabe** ditu, EEPE eskola eraldatzeko plan estrategikoaren ardatz estrategikoekin guztiz bat datozenak, hemen laburbiltzen den bezala.

1. zutabea. Oinarrizko kompetentziak hobetzea

Plan estrategikoaren ardatzekiko bat-etortze nagusia:

- 4. ardatza. Irakasteko eta ikasteko prozesua
- 6. ardatza. Ekitatea eta hezkuntza-inklusioa
- 5. ardatza. Irakasleak eraldaketaren ardatz

Zutabe honetan, planak **ikaskuntza kompetentzial, inklusibo eta kalitatezkoarekin** duen konpromisoa zehazten da, ikasleen eskola-arrakastan gehien eragiten duten funtsezko kompetentzietan jarrita arreta.



2. zutabea. Bizikidetzeta positiboa, hezkidetzeta eta ongizate sozioemozionala

Plan estrategikoaren ardatzekiko bat-etortze nagusia:

- 7. ardatza. Bizikidetzeta, hezkidetzeta eta ongizate sozioemozionala
- 6. ardatza. Ekitatea eta hezkuntza-inklusioa
- 1. ardatza. Lidergo pedagogiko partekatua (ikastetxe-kulturari dagokionez)

Zutabe honetan, planak eskola seguru, inklusibo, erantzunkide eta zaintzara bideratua lortzeko duen konpromisoa garatzen da, ongizatea ikaskuntzarako baldintzatatzat jota.

3. zutabea. Hobekuntzak egiteko ebaluazioa

Plan estrategikoaren ardatzekiko bat-etortze nagusia:

- 10. ardatza. Ebaluazioaren eta berrikuntzaren kultura
- 5. ardatza. Irakasleak eraldaketaren ardatz
- 4. ardatza. Irakasteko eta ikasteko prozesua

Zutabe honetan, prestakuntza-ebaluazioaren kultura sendotzeko helburu estrategikoa aktibatzen da, hobekuntzara eta ebidentzietan oinarritutako erabakiak hartzera bideratutako kultura sendotzekoa.

3. MAILAKAKO GARAPENA ETA PLAN ESTRATEGIKOAREKIKO EZKONTZA

3.1.– Makro maila: hezkuntza-sistema

Plan estrategikoarekiko lotura

Makro mailan, plan estrategikoa eta batez ere haren egitura-ardatzak **sistema osoan aplikatzeko tresna** da estrategia.

Plan estrategikoari egindako ekarpena

- **10. ardatza - Ebaluazioaren eta berrikuntzaren kultura**
 - Ebaluazio-sistema integralaren garapena.
 - Kanpoko ebaluazio diagnostikoak.
 - Ebaluazio Foroa.
 - Ebaluazioa, prestakuntza eta hezkuntza-politika ezkontzea.



- **4. ardatza - Irakasteko eta ikasteko prozesua**
 - Esparru komunak definitzea (eremukako lana, kompetentzia-ikuspegia).
 - Eraldaketa metodologikoa DBHn eta Batxilergoan.
- **6. ardatza - Ekitatea eta hezkuntza-inklusioa**
 - Konpetentziak indartzeko programak.
 - Ikastetxe konplexuenak lehenestea.
 - 78/2024 Dekretuarekin bat etortzea.
- **5. ardatza - Irakasleak eraldaketaren ardatz**
 - Atzemandako premiekin bat datorren prestakuntza-eskaintza instituzionala.
 - Berritzegune Nagusiaren laguntza teknikoa.

3.2. Erdiko maila: ikastetxea

Plan estrategikoarekiko lotura

Erdiko maila plan estrategikoa gauzatzeko espazio pribilegiatua da; hor, ardatzak antolaketa-eta pedagogia-erabaki bihurtzen dira.

Zuzendaritza-taldeak eta lidergo pedagogikoa

1. ardatzarekin ezkontzea – Lidergo pedagogiko partekatua

Zuzendaritza-taldeek:

- plan estrategikoa ikastetxearen testuinguruan interpretatzeko zeregina gidatzen dute;
- ikastetxearen heziketa-proiektuaren (IHP), ikastetxearen urteko planaren (IUP) eta eskola eraldatzeko plan estrategikoaren (EEPE) arteko koherentzia ziurtatzen dute;
- zutabe estrategikoekin bat datozen hobekuntza-helburuak lehenesten dituzte;
- erantzukidetasunaren eta etengabeko hobekuntzaren kultura sustatzen dute.



Hezkuntza-orientazioko taldea

6. eta 7. ardatzekin ezkontzea

Orientazio-taldeak:

- emaitzen hobekuntzari logika inklusibo batetik heltzen laguntzen du;
- tutoretza eta ikasleentzako laguntza indartzen ditu;
- ikaskuntza, ongizatea eta bizikidetzaren uztartzen ditu;
- ebidentzia pedagogikoetan eta sozioemozionaletan oinarritutako erabakiak babesten ditu.

BeA figura

5. eta 10. ardatzekin zuzenean ezkontzea

BeA figura erabakigarria da ikastetxean plan estrategikoa modu eraginkorren aplikatzeko orduan; izan ere:

- ebaluazioa, berrikuntza eta prestakuntza uztartzen ditu.
- eraldaketa metodologikoko prozesuak zuzentzen ditu (4. ardatza);
- helburu estrategikoei lotutako prestakuntza dinamizatzen du (5. ardatza);
- ebidentzietan oinarritutako hobekuntza-kultura bultzatzen du (10. ardatza).

3.3. Mikro maila: ikasgela eta irakasle-jarduna

Plan estrategikoarekiko lotura

Mikro mailan, egiazki gauzatzen dira planean hartutako konpromisoak:

- **4. ardatza:** metodologia aktiboak, ikaskuntza konpetentziala, eremukako lana.
- **6. ardatza:** ikaskuntza pertsonalizatzea eta ikasgela arrunteko laguntza inklusiboak.
- **7. ardatza:** hezkuntza sozioemozionala, eguneroko bizikidetzaren, tutoretza sistematikoa.
- **10. ardatza:** eguneroko jardunean txertatutako prestakuntza-ebaluazioa.



4. Estrategiaren programak eta programok planaren ardatzekin duten lotura

Oinarrizko kompetentziak (4., 5. eta 6. ardatzak)

- Irakurmena eta matematikarako eta zientziarako kompetentziak indartzeko programak
- Eremukako lana (DBH)
- Eraldaketa metodologikoa Batxilergoan (USP, unibertsitaterako sarbide-proba)
- Eraldatzen, HBSP (Hezkuntzan Berariaz Sendotzeko Proiektua), Bidelaguna
- Indartuz eta He-Indartuz
- Hedatze proiektua (kompetentziak indartzeko saioekin bat etorri behar du)

Bizikidetzeta eta ongizatea (7. eta 6. ardatzak)

- Bizikasi ekimena
- BAT taldeak
- Tutoretza-programak
- Jokabide suizida prebenitzeko, esku hartzeko eta posbentzioa egiteko estrategia
- Hezkidetzeta, zeharkako ardatz gisa
- Programak: ZIUR, curriculum sozioemozionala

Hobekuntzak egiteko ebaluazioa (10. ardatza)

- Kanpoko ebaluazio diagnostikoak
- Barne-ebaluazio integratua
- ISEI eta Ebaluazio Foroa
- EKHA aplikazioa
- Emaitzak era pedagogikoan erabiltzea ikastetxeetan



5. Urteko zehaztapena eta plan estrategikoarekiko koherentzia

Ikastetxearen Urteko Plana (IUP) plan estrategikoa ekintzetara ekarriko duen tresna da, plan estrategikoa adierazpenen marko huts batean geratuko ez dela bermatzen duena.

IUP bakoitzak:

- ikastetxeak plan estrategikoaren zer ardatz lehenesten dituen identifikatu behar du;
- strategiaren hiru zutabeen bitartez gauzatu behar ditu;
- prestakuntza, berrikuntza eta ebaluazioa lotu behar ditu;
- eta plana noraino garatu den adierazi behar du Urteko Memorian.